

dala esanik. Schuchardt-enak eskerak ematen dizki-gu, urteroko saria bialdi diogulako ta auxe artu duela iragartzen digu.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez amaitu da batzañaldia.

---

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,  
1925 'ko Otsaila 'ren 26 'an.**

Batzañaldi ontara euskaltzain abek datoz : Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza eta Lakonbe.

1. Azkue jaunak dio : Mikoleta'ren elastaldi berri bat egin bear litzakela, Urkijo jaunak duen'esku-idazkitik atera-ta. Oñefarako Euskaltzaindiak Urkijo jaunaren baimena bear eta onek gogo guziz ematen dio.

2. Urkijo jaunak Euskaltzaindiari iragartzen dio: salgai dagola Bayona'ko diozesiak egindako liburu *Plegariak* baldin erosi nai badu.

3. Katalandañak beren *Mapa lingüístico* argitaratu dute : 900 peseta beronengatik eskatzen dituzte. Autua jo da, erosiko ote dan edo ez ta auxe erabaki da : Euskaltzainburuak ikusiko du, ainbeste diruen diña ote dan Mapa ori; diña balitz, erosi beza.

4. Urkijo jaunak Euskaltzaindiari galdera bat egin nai lioke : *Patronimia Vasca* egiteko, Eusko-ikaskuntza'k Odon Apraiz jauna arazotu du. Badakite euskaltzainak *Toponimia Vasca* zertan dagon : Eleizalde zanaren sendiari eskatu zayo eta onek ez

du erantzuten. Eragozpenik ote litzaken, galdetzen du Urkijo jaunak *Patronimia*'ko lana bere gain artu duen batzordeak, *Toponimia*'koa ere artzea? Ezetz erantzun dio Euskaltzaindiak.

5. Azkue jaunak esaten digu, on litzakela Etxegarai jaunari galdetzea, Altube'ren bitartez, emendik bi ilabeterako gertuko ote litzaken Euskaltzaindian bere sañera egiteko. Onetsi du Euskaltzaindiak galdebide auxe.

6. Azkue jaun berak irakuri digu, bere lan eder bat *Repartición semántica* deritzana.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi ta, otoitez amaitu da batzaraldia.

---

### Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1925 'ko Otsailaren 27 'an.

Aurreko agirian aipatzen diran euskaltzain berak datoz.

1. Urkijo jaunak antziñako idazki batzuek aztertuta, *Kampomanes* zeritzan gizon ospetsuak, euskerraren alde zer egin zuenen beñi eman digu. Urkijo'ren lan ortan dakusgu zenbat arduratzen zan *Sociedad de Amigos del País* euskera maitea geyen-geyenen ezagufarazten. Oroitu ditu Urkijo'k : Aipitarte'ren lanaz euskal-iztegia eta Egino jaunarenak atsofitz ta esakunetan. Oso gogo aundiz entzun dio Urkijo jaunari Euskaltzaindiak.

2. Altube jaunak irakuri digu, bere lan eder bat, Azkue'ren *Morfología*-ri oartxo batzuek ezafirik.